

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Medenasa enpresa bisitatu du, zeinak hamar lanpostu berri sortu dituen

*Korporazioak industria hondakinak kudeatzen ditu eta 6 milioi euro inbertitu ditu makina berriak erosteko*

Lunes, 23 de septiembre de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Metales de Navarra S.A. (Medenasa) enpresak Berriobeitin duen lantegia bisitatu du astelehen honetan. Korporazioa industria hondakin kudeaketa integramean aritzen da. Berriki 6 milioi euro inbertitu ditu makina berriak erosteko eta hamar lanpostu berri sortu ditu.

Zehazki, ibilgailuak eta beste produktu batzuk zatikatzeko makina bat erosi du, materia ezberdinak (burdina, metalak, eserlekuen apar/oihalak, plastikoak, etab.) zatitu eta bereizten dituena; baita metalak balioztatu eta berreskuratzeko makina bat, bai eta kablea berreskuratzeko beste bat ere.

Bisitan izan dira, halaber, lehenengo lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea; enpresako kudeatzaile Ramón Zufia eta korporazioarekin lan egiten duten enpresen ordezkariak.

Enpresa 1986. urtean sortu zen eta txatarra bildu, aukeratu eta prozesatu egiten du ondoren altzairu-fabrikei eta galdategiei saltzeko. Nafarroako Gobernuaren baimena du hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak kudeatzeko, eta 61 langile ditu.



Barcina Lehendakariak Medenasa enpresa bisitatu du.